

MATERIALISMO HISTERIKOA

Isilean



UXUE APAOLAZA LARREA

Katalunian ere hauteskundeak izan dira. “Emozioak, pragmatismoa eta xenofobia: Kataluniako hauteskundearen klabeak” titulu zuen *Público* egunkariak. Ezkerra dabil pragmatiko eta kudeatzaile han ere, eta emozioak Junts-i lotuta aipatu zituzten. Baina migratzaileen aurkako diskurtsoa ere puztuta dator, oso bestelako emozioz bada ere. PP, Vox eta Aliança Catalana izan dira migratzaileez aritu direnak. Eskuina, beraz, Katalunian ere.


Migrazioaz eskuinak hitz egiten du, eta ezkerrek, batzuetan, astakeriak atrila kolpatzen dienean-edo, gehienez, erantzun egiten du, bizitza hobe baten bila datorren jende batez, gure zaintza beharrak asetzen dituen, eta RGIaz ari badira, defendatzen dute esanez, hartzaile asko langileak eta pentsiodunak direla... Ezer sakonik ez, izan ere, hauteskundeak diseinatzen dituztenek badakite, ziur, ez geundekeela ados. Zu “ezkertiar”, ni “ezkertiar” ez geundeke ados; asistentzialismoa, integratu behar ditugu, herritar zapalduekin elkartasuna, gure zapalduekin, antolatu eta kalashnikov banarekin etortzen ez direlako eskerrak eman...

Geurean eskuin muturrak ez ditu halako emaitzak: Katalunian 28 eserleku dituzte PP kontuan hartuta. Baina tamainako injustiziek sortzen dituzten sumindurak ez ikusteak, hauteskundeetan gaia aipatu ere ez egiteak ia, urduri jartzen du. Hasten bada alderdiren bat esaten euskara arriskuan, gure gaztetxoak parrandan, gure emakumeak... ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Errausketa

Zubietako erraustegi inguruan laginak biltzen bost urte daramatza ToxicWatch fundazioak, metal astunen, dioxinen, PCBen eta PFASen bila. Kutsaduraren “igoera kezagarria” aurkitu dutela jakinarazi du Errausketaren Aurkako Mugimenduak. Maiatzaren 18rako martxa deitu dute.

Kartzela

Beste preso bat hil da espetxean, Basaurin. Maiatzaren 3an aurkitu zuten hilotz, “gaindosi” zantzuekin, baina Jaurilaritzak ez du heriotza baieztatu 7ra arte, eta autopsiaren emaitzen zain dagoela adierazi du. EAEko espetxeen eskumena hartu zuenetik espetxean hiltzen den bosgarren preso da.

Euskara

Azterketak euskaraz pasatzearen aldeko mobilizazio eguna antolatu dute Euskal Herri osorako. Elkarretaratzeak, manifestazioak, bide blokeoak, une zaratatsuak, kalejirak... bakoitzak bere modura, horra maiatzaren 17rako Bernat Etxepare lizeoko ikasleek irudikatu duten ekimen berria.